

“Ekaitza” eta “She´s lost control”, irabazle Huhezinema 2012an

2012/05/11

Sari ofizialak

Huhezinema festibaleko epaimahaiak horrela banatu zituen aurtengo sariak:

- **Euskarazko film labur onena** (Goiena saria, 1.000 euro): "Ekaitza", Alberto Gastesik zuzendua Donostia hotz eta euritsu batean. Bertan istorioa pizten da neska bat eta mutil bat kalean gurutzatzen direnean.
- **Film Labur Onena eta Produkzio Onena** (Eiken saria, 600 euro): "She´s lost control", Haritz Zubillagarena. Irabazleak 600 euro irabazi ditu, eta Eikenerako bazkidetza kuota urtebeterako.
- **Ikasleen Labur Onena** (500 euro): "Maskarak". Egileak: Ander Bolibar, Ariane Irazusta, Miren Ormazabal eta Oihan Vitoria.



Publikoaren sariak

Ikusleek hiru sari banatu zituzten.

- **Labur onena lehiaketa ofizialean:** "Zeinek gehiago iraun", Gregorio Murorena. 400 euro eta Pates Zubia saskia.
- **Ikasleek egindako dokumental onena:** "Maskarak".
- **Film labur onena:** "Ohartxoak".

Epaimahaia

Aurten honako profesionalek osatu dute epaimahaia: Aitor Gutierrez eta Maialen Sarasua errealizatzaileak, Beñat Sarasola idazlea eta Miguel Gomez-Tejedor ekoizlea.



Argazkia: Goiena